

**GIPUZKOAKO
HALTEROFILIAREN
PLAN PROSPEKTIBO-ESTRATEGIKOA**

2030



Edukien aurkibidea



01

Justifikazioa eta aukera

Orria 03

02

Misioa, Ikuspegia, Balioak eta Apustu Egoera

Orria 05

03

Helburu estrategikoak eta jarduketak & proiektuak

Orria 10

04

Planaren gobernantza

Orria 18



Justifikazioa eta aukera

Gipuzkoako Halterofiliaren Plan
Prospektibo-estrategikoa – 2030



Dokumentu honek Gipuzkoako Halterofiliaren 2030erako Plan Prospektibo-estrategikoa jasotzen du. Plan horren etorkizuneko agertokiak izan behar du kirol honen garapenean inplikaturako eragile guztiek egin beharreko jarduketan ibilbide-orria, jakin dezaten «nora goazen» eta, beraz, «zertarako ari garen lanean». Hain epe luzerako plan bat ezin da dokumentu estatiko bat izan; aitzitik, eguneratzeko eta berrorientatzeko aukera emango duen euskarri bat eta mekanika bat izan behar ditu, urteko jarduketa planen bidez hedatu ahal izateko.



2

Misioa, Ikuspegia, Balioak eta Apustu Egoera

Gipuzkoako Halterofiliaren Plan
Prospektibo-estrategikoa – 2030

Planaren misioa

Gipuzkoako halterofiliaren plan prospektibo-estrategiko honen misioa honako hau da:

- Gipuzkoako Halterofiliaren hazkundera eta garapenean inplikaturako eragile guztientzako gida izango den ibilbide-orria izatea, haien jarduketa guztiak 2030. urtean lortu beharreko etorkizuneko egoera erdiestera bideratuz.





2030erako ikuspegia

Gipuzkoako Halterofiliaren Plan Prospektiboez-estrategikoarekin 2030. urtean lortu beharreko ikuspegia honako hau da:

- Gaur, 2030eko otsailaren 28a, halterofilia Gipuzkoako gizarteak ondo ezagutzen duen eta onarpen zabala duen kirol bat da, sare sozialetan eta komunikabideetan duen ikusgarritasunari esker. Gaur egun, 6 klub eta 200 pertsona federatu baino gehiago daude, horietatik % 40 emakumeak. Lehiaketen kalitatea, ikusgarritasuna eta kiroltasuna dela-eta ikusle asko erakartzen ditu.

Balioak

Planaren garapena eta betearazpena honako balio hauetan oinarritzen da:

Gardentasuna

Komunikazio irekia, sinplea eta irisgarria

Konpromisoa

Pertsonen eta eragileen inplikazioa

Elkarlana

Eragileen arteko benetako lankidetzeta eta talde-lana

Zuzentasuna

Etika eta zintzotasuna Planaren jarduketak gauzatzean

Hurbiltasuna

Inplikaturako eragileen arteko konplizitatea

Gogo bizia

Emaitzarik onenak lortzeko konpromisoa eta ahalegina

Kalitatea

Emaitzarik onenak lortzeko konpromisoa eta ahalegina

ZK.	Izena	2030ERAKO APUSTU EGOERA
2	Balioak	Halterofilia kiroltasunaren, adiskidetasunaren, laguntasunaren eta pertsonen eta klubaren arteko talde-lanaren adibide bat da beste kirol batzuentzat. Klubaren arteko lankidetzak eta elkarlana etengabea izan da urte hauetan.
3	Kirolari kopurua	Halterofiliaren praktika nabarmen hazi da, eta kirolari kopuruak gora egin du. Gaur egun, Gipuzkoan, 6 klub eta 200 kirolari inguru daude.
5	Halterofilia eta emakumea	Halterofilia egiten duten emakumeak nabarmen ugartu dira, kirolari guztien % 35-45 ingurura iritsiz.
6	Eskola kirola	Eskola kirolean aukera orokor gisa sartzea lortu da.
7	Lehiaketak	Urte hauetan, lehiaketen diseinuaren eta antolaketaren kalitate-maila handitzea lortu da, eta kolektibo desberdinen balorazioa oso positiboa izan da, 9 puntu inguru emanek.
10	Kirol materiala	Halterofilia egiteko materiala hondatu egin da orokorrean eta berritze puntualak egin dira; horrenbestez, materialei dagokienez desberdintasunak daude instalazioen arabera. Horren ondorioz, materialarekiko gogobetetze-mailaren balorazioa 6-7 tartean mantendu da.
12	Epaileak	Epaile kopurua 30-35 bitartean mantentzen da, baina haien kalitate-mailak gora egiten du prestakuntza eta jarraipen egokiari esker.
13	Baliabide ekonomikoak (diru sarrerak)	Ukrainako gerrak eta energia-krisiak eragindako krisi ekonomikoak gaituta, hazkunde ekonomiko bat gertatu da, eta horrek kirolera bideratutako baliabide publikoak eta pribatuak areagotzea ekarri du.
14	Boluntarioak	Boluntarioen kopurua asko hazi da, eta, horri esker, «betiko boluntarioek» utzi izan dutenean, haien lekua erraz bete ahal izan da. Kirolarien % 45-55ek rol bakarra du.
16	Administrazio publikoa	Administrazio publikoek inplikazio handia izan dute halterofiliaren sustapenean, oso positiboki baloratu baitute lurraldean izan duten ibilbide historikoagatik eta kirol olinpikoa izateagatik.
18	Ikuskizuna	Lehiaketetan ikusleen presentzia gero eta handiagoa da, hobekuntza esanguratsuak sartu baitira, eta horrek erakargarriago egiten ditu publiko ez-adituarentzat.
19	Irudi positiboa	Halterofiliak kirol baketsuaren eta kiroltasunekoaren irudiari eutsi izan dio eta eusten dio, aurkariarekiko errespetuari lehentasuna emanek.
23	Sare sozialak	Halterofiliak presentzia ordenatua eta planifikatua du sare sozialetan, eta horri esker, bere jardura zabaltzeko eta kirolari berriak erakarri ahal izan ditu. Sare horien erabilzaileek berek zabaltzen eta helarazten dituzte kirol honi buruzko albisteak, irudiak...
24	CrossFit	Araudi olinpikoaren babespean lehiaketa ofizialik ez dagoenez, pertsonen fluxu handia dago CrossFit-etik halterofiliara, eta klub berriak ere sortu dira.
26	Dibertsioa	Halterofiliaren praktikan egindako aldaketa garrantzitsuen ondorioz, kirol atsegina eta dibertigarria da, eta, bereziki, gazteak erakartzen ditu.




3

Helburu estrategikoak eta jarduketak & proiektuak


**Gipuzkoako Halterofiliaren Plan
Prospektibo-estrategikoa – 2030**

Helburu estrategikoen eta jarduketa & proiektuen definizioa: apustu egoera diseinatu ondoren, etorkizuneko egoera horretara iristeko estrategia hedatzen da. Horretarako, helburu estrategikoen funtsezko aldagaiak, jarduketak eta horiei lotutako adierazleak biltzen dira, 2030ean planaren jarraipena eta azken ebaluazioa egin ahal izateko.



1. Kirolariak eta klubak

Halterofiliako kirolarien eta klubuen kopurua handitzea




JARDUKETAK

- 1.1. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, ikastetxeetan halterofilia eskaintzeko estrategia bat zehaztea, eta horren barruan sartzea halterofilia-eskoletako hasiera goiztiarra (LH3tik aurrera).
- 1.2. Udal eta ikastetxeekin batera, udalerrietako eskola-kiroleko programetan halterofilia sartzea zehaztea, klubak dagoeneko kokatuta dauden udalerrri eta eskualdeetan hasita, geroko garapena ahalbidetuz.
- 1.3. Federazioaren Eskola Kirolaren Planarekin jarraitzea; bertan, halterofiliako entrenamenduak eskaintzen dira ikastetxeetako gimnasia-eskoletan.
- 1.4. Gipuzkoako Halterofilia Eskola diseinatu eta garatzea Zizurkilen, teknikazioko lurralde-mailako erreferentziazko zentro gisa, eskola kiroleko kategorietako kirol-hastapenetik hasi eta gainerako kategorietaraino.
- 1.5. Halterofilia bultzatzea, bai CrossFit-eko kirolariak erakarriz, bai Cross-Fit-eko atletekin lehiaketa herrikoiak antolatuz, xede-publiko posible gisa, bai beste kirol-diziplina batzuekin lankidetzan arituz, bereziki oinarrizko kirolaren garaian, kirol-jarduera hori egiten ez duten edo uzten ez duten kirolariak erakartzeko.
- 1.6. Klubetan jarduera sortzea halterofiliaren praktika eskaintzeko. Horretarako, beharrezkoa da prestakuntza egokia duten entrenatzaileen parte hartzea.
- 1.7. Gipuzkoan halterofiliako klub berrien sorrera bultzatzea, bereziki gaur egun halterofiliako klubarik ez dagoen eremuetan, dela klub zaharrekin harremanetan jarriz jarduera berreskuratzeko aukera aztertzeko, dela cross-fit establezimenduen jabeekin harremanetan jarriz, jarduerari balio handiagoa emanez (Nafarroako adibidea) eta halterofiliako klub bihurtu daitezkeen bultzatuz. 2023an crossfit zaleei egin beharreko balio erantsiko eskaintza definitzea.
- 1.8. Kirolarien hobekuntza eta entrenatzaileen helburuak betetzea sarituko duten pizgarriak diseinatzea.

2. Entrenamendua eta lehiaketak

Halterofiliaren kirol-jarduera eta lehiaketak hobetzea



JARDUKETAK

- 2.1. Lehiaketan antolaketan eta garapenean teknologia berriak txertatzea, absolutuen lehiaketetarako gutxieneko teknologikoak finkatuz (jasotzeak errepikatzea, emaitzak berehala lortzea...). Federazioaren bulegoan materiala edukitzea: lehiaketetarako garraioa antolatzea.
- 2.2. Lehiaketen irudia lantzea, ikusleentzat interesgarriagoak edo ikusgarriagoak izan daitezten. Besteak beste, honako neurri hauek sartzea: lehiakideen aurkezpen hobekia; epaileen eta antolatzaileen janzkera zaintzea; photocall bat, podium bat, musika eta speaker bat lehiaketetan; epaileak horretarako prestatuz eta lan hori erraztuz kirolarien datu-base bat eginez.
- 2.3. Federaziotik lehiaketak antolatzeko arduradunak sortzea, antolakuntzako gai guztiez arduratu daitezten: parte-hartzaileen zerrenda, ordutegiak, epaileak, aktak, emaitzak.
- 2.4. Instalazioen hobekuntza bultzatzea eta kirol-materiala mantentzeko eta berritzeko plan bat egitea eta gauzatzea.

3. Ezagutza

Kirol jardueraren garapenean esku hartzen duten pertsonen kopurua eta maila teknikoa handitzea



JARDUKETAK

- 3.1. Epaile berriak erakartzeko eta titulatzeko kanpaina bat egitea, bereziki egungo altxatzaileak fidelizatuz.
- 3.2. Epaileentzako etengabeko prestakuntza espezifikoa egitea.
- 3.3. Entrenatzaile berriak erakarri eta haien titulazio ofiziala eta gaikuntza profesionala lortzeko kanpaina bat egitea (kirol-lanbideei buruzko lege berria aplikatzea).
- 3.4. Gipuzkoan entrenatzaileentzako prestakuntza espezifikoa egitea.
- 3.5. Federazioko kideen gaitasunak hobetzea eremu orokorretan, hala nola digitalizazioan, teknologia berrietan, sare sozialetan, ...
- 3.6. Epaileen jarduerak eta entrenatzaileen ordainsariak (klub bakoitzeko erreferentziatzko entrenatzailea) ordaintzeko estrategiak baloratzea eta, hala badagokio, abian jartzea.



4. Marketina eta komunikazioa

Halterofiliaren marketina eta komunikazioa hobetzea



JARDUKETAK


- 4.1. Marketineko eta komunikazioko estrategia bat definitzea: helarazi beharreko mezu eta ideia indartsuak identifikatzea (osasuna hobetzea, ahalegina...), xede-segmentuak, zereginak, arduradunak, ...
- 4.2. Oinarrizko komunikazio-kit bat diseinatzea eta klubei bidaltzea: sare sozialetako presentziari, webguneari, argazkien edizioari, bideoei eta abarri buruzkoa. Zehazki, lehiaketetako bideoak editatzen eta zabaltzen jarraitzea.
- 4.3. Web-orri bat abian jartzea, honako hauei buruzko informazioarekin: estatutuak, araudia, egutegia, lehiaketak (zerrendak, tokia, ordutegiak, emaitzak), Gipuzkoako selekzioak, rankinga, historikoak, klubak, entrenatzaileak, epaileak, prestakuntza, ...
- 4.4. Sare sozialetan profilak sortzea, web-orrian dagoen informazio guztiaren berri emateko. Adibidez, Twitterren, @HalterGipuzkoa edo Instagramen
- 4.5. Jendearentzat, oro har, halterofiliaren kirol-jarduera eta lehiaketak erakargarriago egingo dituzten jarduerak bultzatzea, hala nola ate irekiko jardunaldiak, jaietako erakustaldiak, bideoak... Youtuber baten jarduera abiarazteko aukera baloratzea.
- 4.6. Komunikabide klasikoek halterofilia jardueran arreta jartzea sustatzea.

5. Plan estrategikoaren kudeaketa

Plan estrategikoaren kudeaketa ordenatzea eta antolatzea

JARDUKETAK

- 5.1. Federazioaren antolaketa bat diseinatzea, aldizkako jarraipena egin eta plan honetan aurreikusitako jarduerak gauzatu ahal izateko. Aldizkako jarraipen bilerak egitea eta garatzen diren jardueren berri ematea kolektibo osoari (gardentasuna).
- 5.2. Organigrama bat sortzea, federazioan lan egingo duten pertsonen egiturarekin, haien eginkizunak zehaztuz.
- 5.3. Berdintasun plana eguneratzea eta planifikatzen diren ekintzak gauzatzea.



6. Baliabide ekonomikoak

Baliabide ekonomikoak eta pertsonen inplikazioa handitzea

JARDUKETAK

- 6.1. Halterofilia hazteko baliabide publiko eta pribatu berriak bilatzea. Federazioan babesletzak bilatzeko arduraduna(k) esleitzea.
- 6.2. Izena emateagatik ordaindu beharreko lehiaketak antolatzea.
- 6.3. Klub guztietako pertsonak sentsibilizatzea, kontzientziaztea eta federazioaren jardueretan inplikatztea. Klub guztietako pertsonak deitzea federazioak antolatutako jardueretara, bai kudeaketako jardueretara (batzarrak,...), bai kirol jardueretara (lehiaketak, kontzentrazioak).
- 6.4. Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko harremana zaintzea eta haren planak ulertzea, betetzen direla bermatzeko, federazioaren jarduketak Aldunditik datozen eguneraketetara egokituz une oro.
- 6.5. Federazioak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea eta kopurua handitzearen bideragarritasuna baloratzea, lizentzien kostuaren igoerak justifikatze aldera; horrela, praktikatzaileen kopurua handitzearekin batera, federazioaren diru-sarrerak nabarmen handitu baitaitezke.
- 6.6. Federazioan, jarduerarekin lotutako jarduketetan, praktikak egiteko programak eskaintzeko aukera aztertzea, besteak beste, fisioterapeutak, nutrizionistak, psikologoak...





Planaren governantza

Gipuzkoako Halterofiliaren Plan
Prospektibo-estrategikoa – 2030

Planaren gobernantza





GIPUZKOAKO HALTEROFILIAREN

PLAN PROSPEKTIBO-ESTRATEGIKOA

2030

2023ko apirila



Laguntzailea:

